

Hegazkinean

Bi pilotu sartzen dira.

- Pilotu nagusia : Uf ! Leher egina naiz ! Barda koktel bat bagenuen eta kasik lo egin gabe etorria naiz.
- Pilotu-laguna : Aspertua naiz ! Beti bestan ibiltzen zara eta gero burua ez duzu lanean. Gainera hegazkin zahar honetaz ez naiz batere fida !
- Pilotu nagusia : Gaur ere eramanen gaitu, bai.
- Pilotu-laguna : Denak kontrolatuak dituzu ?
- Pilotu nagusia : Errazu ! Bada orain hogeitaz pilotu naizela, badakit engoitik zer egin behar dudana ! Ez nazazula ezdeus batentzat har !

Pilotu-laguntzailea sartzen da.

- Laguntzailea : Egun on Peio, egun on Jakes. Ongi ? Prest zarete ? Denak sarrarazten ahal dituzta ?
- Pilotuak : Bai, bai. Abiatzeko tenorea da.

Bikote zahar bat sartzen da lehenik.

- Gizona : Erraxu, plazer baduxu, zer tenoretan ukanen diuxu askaria ? Etxen nizalarik xingar eta arroltze jaten ditixut zortzi orenetan ttanko eta ahuldua nuxu.
- Laguntzailea : Zaude gustuan, abiatu orduko kafesne on bat ukanen duzue.
- Emaztea : Ez zirezte araz fiteegi joanen ! Senarrak duela urtea bihotz-atake bat ukana dixu eta pila ezarri berria dakoxie. Ez dixu viteza soportatzen. Gainera lehen aldia diuxu hegazkina hartzen dugula eta medikuak pilulak emanak dazkotxu.
- Senarra : Nik ez nixun ez jiteko emeiarik bainan gure emazte hunek ez baitautan bakerik emaiten !
- Laguntzailea : Ontsa da. Ikusiko duzue: loriatuko zarete !

Ondotik bi neska gazte sartzen dira.

- Neska 1 : Bikain ! Super ! Sobera cool !
- Neska 2 : Zer hegazkin ederra ! Non jartzen zara ? Leihatilaren ondoanv?
- Neska 1 : Berdin munta zait ! Non jarri nahi duzu zuk ?
- Neska 2 : Hauta ezazu zuk !
- Neska 1 : A ez ! Zuk duzu bidaia honen ideia ukan ! Zuri da hautatzea !
- Gizon zaharra : Zatozte ene ondora. Horrela goxoan eleketara ariko gara !
- Emazte zaharra : Isil zaitez, Mattin ! Utz itzazu neska gazte horiek bakean !

Bi neskak jartzen dira.

Laguntzailea pilotuei : Hara, prest gara.

Pilotu nagusia mikrotik : Jaun-Andereak, egun on. Pilotu nagusia zaizue mintzo. Lehenik ongi etorri denei. Eusko-Inter konpainiak espero du bidaia ongi pasatuko duzuela. Zerbait eskas baldin baduzue, laguntzailea hor duzue zuen zerbitzuko. Kanarietara helduko gara lau orenen buruan. Orain, ene laguntzaileak seguritateko azalpen batzuk emanen dizkizue.

Laguntzailea : Jaun-andereak, abiatzekotan baikara, uhalak esteka itzazue. Zuen aulkiaren azpian sokorri palto bat atzemanen duzue. Nola erabiltzen den azalduko dizuet. Larrialdi bat gertatzen balitz soinean ezarri beharko zenukete, ongi estekatu eta eskuineko soka horia tiratuz hanpatuko litzaizueke. Ontsa ulertu duzue ?

Bidaiarien ondotik pasatzen da uhalak ontsa estekatuak diren etxetik ikusteko.

Pilotu nagusia : Akitua naiz ! Pilotu automatikoa ezarriko dut. He, he! Museko kartak ekarriak ditut pixka bat deskantsatzeko !

Neska 1 : Heltzea berantetsia dut ! Zer opor goxoak pasatuko ditugun !

Neska 2 : Erosi zenuen 3 Suisses-etan ikusi bainujantzi pollit hura ?

Neska 1 : Zein ?

Neska 2 : Marradun bat, aitzinean errondan irekia...

Neska 1 : Ez, ez. Azkenean ene izarikorik ez zen gehiago eta haren ordeztu bi zatiko bat manatu nuen.

Gizon zaharra neska gazteez arrunt agradatua da eta geldi-geldia haiei so dago.

Emaztea : Mattin, uzkitzu neska horiek bakean. Zaharregia zira horientzat. Erremedio guziak hartu dituzuia ? Eta hortzetakoaren garbitzeko pastillak ez dituzu bederen ahanntzi... Ezarriak nauzkizun bufetaren gainean.

Gizona : Baietz, emaztekoa! Denak hartuak dituztala erranez geroz !

Emaztea : Zer errainetako mina dutan ! (Laguntzaileari) Erraxu, barkamenduarekin, ekartzen ahal dautaxia burukita bat ? Bizkarra xehatua dixut.

Gizona : Aldi berean ene askariak okupatuko xirea ? Gose hamikatua nuxu.

Pilotua : Ez dakit hegazkin honek zer duen ; arrunt motela atzematen dut.

Pilotu-laguna : Ez da harritzekorik. Badu orain 25 urte martxan dela. Erretreta merezitua du engoitik.

Pilotua : Jendeak baleki zer lanjerrean ibiltzen den ez luke hegazkin honetan zangorik sartuko.

Pilotu-laguna : To, hau ere gelditua da.
(aitzinean duen pantaila bat kaskatuz)

Pilotua : Zein da ?

Pilotu-laguna : Olioaren orratza arrunt beherean dugu. Funtsean ez da gelditua den bakarra.

Neska 1 : Joan den egunean, Gazteen Topagunean, Aitor ikusi dut. Bazeneki zein edertua den ! Beltzatua da, gihartsua... Ene ondotik pasatu delarik besoa hunki diot eta geroztik eskua ez dut garbitzen. (Potta ematen dio bere eskuari.)

Neska 2 : Zer xantza ! Ene amorosa ez da Aitor bezain ederra baina badu auto bat eta nahi dudana tokira erematen nau. Golfa du, zilar kolorekoa !

Neska 1 : Trago baten edaten ari nintzelarik Maiena eta Eztitxurekin, Aitorrek begiratu dit.

Neska 2 : Uaaaa ! Eta gero ?

Neska 1 : Zer « eta gero ? » ? Fitsik ez. Ez da gaizki jadanik !

Neska 2 : Azkena kontatu behar dizut. Badakizu Pette norekin ikusi dudana eskuz-esku ?

Neska 1 : Zein Pette ? Sudur luzea duena ?

Neska 2 : Bai, hura. Kattinekin !

Neska 1 : Erk ! Gaixo Kattin ! Ez du xantzarik !

Gizona : Oinak minberatuak ditixut. Igandetako zapetak ezarri behar ! Zer menskeria ! (Zapetak kentzen ditu.) A, zer plazera !

Emaztea (bazterretara so eginez) : Uste dut zuk bezala eginen dutala. Nork erranen zuen gu, gure adinean, hegazkinean ibiliko ginela ? Beharrik hartu nituen bai txartel hauek Heletako kermezan. Sekula ez irabazten eta behingoan lehen saria guretako ! Hori zerbait da bai, hala ere ! Lehen saria ! Kanarietan aste bat !

Pilotu-laguna : handian paso.

Pilotua : Paso.

Pilotu-laguna : Ttipian imido.

Pilotua : Idoki.

Pilotu-laguna : Parea bai.

Pilotua : Bai.

Inarrosaldiak senti dira.

Pilotu-laguna : Zer da hori ?
Pilotua : Kaka zaharra ! Dobleak nituen.
Pilotu-laguna : Eta nik 31.
Laguntzailea : Zer zen inarrosaldi hori ?
Pilotua : Seguritate neurriak hartu behar ditugu. Arazoak baditugu.
Laguntzailea : Zer arazo ? Mintza zaitez : egia jakin nahi dut.
Pilotu-laguna : Isil zaitez ! Ez duzu ikasi odol hotza atxiki behar dela ? Zoaz zure lanaren egitera.

Laguntzailea (lasai-lasai) : Jaun-andereak ez zaitezela kezka. Aire zilo batean pasatu gara. Ez da nehongo lanjerrik. (Lasterka badoa pilotuengana) Zer gertatzen da ? Egia jakin nahi dut ! Ez dut hil nahi !
Pilotua : Guk ere ez ! Isil zaitez, emazte mekanika !
Pilotu-laguna : segur zara denak kontrolatuak zenituela ?
Pilotua : Kontxo ! Kerozena... ahantzi dut ezarraraztea !
Pilotu-laguna : Jaun-andereak, arazo bat badugu. Altitudea galtzen ari gara. 1000 oinetan gara... 800 oinetan... 500 oinetan... Jausgailuak har ditzagun !
Pilotua : Jausgailurik ez dugu ! Ahantzi ditut !
Pilotu-laguna : 300... 200... 100...

Bat-batean argiak itzaltzen dira eta...

*Jokalaria : 2 hegazkin-pilotu, laguntzailea, bikote zahar bat, bi neska gazte...
Pertsonaien kopurua emenda daiteke.*

*Autoreav: Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : Kolegiotik goiti*